

PROIEKTU ESZENIKO BAT LANTZEN ZABILTZA?

Hona hemen, azalpen eta guzti,
zer eskubide dagozkizun,
eta nola kudeatu



1- ZER DIRA JABETZA INTELEKTUALAREN GAINEKO ESKUBIDEAK, ETA NORI DAGOZKIO?

Obra eszeniko bat sortzen baldin baduzu, izan obra osoa, izan zati bat (testua idatzi, koreografia sortu, musika konposatu, bisualez arduratu, etab.), **autorea** zara, eta **autoretza-eskubide** batzuk dagozkizu, sorkuntzaren unetik beretik eraten direnak, inongo erregistrorik edo izapiderik gauzatu gabe ere.

Obra eszenikoak **antzezten edo gauzatzen** baldin badituzu (aktore, dantzari edo eszena-zuzendari), eta zure interpretazioa euskarri batean finkatzen bada, esate baterako, zure emanaldia grabatzen baldin bada, eta plataformetan eskaintzen, horri **lotutako eskubide** batzuk dagozkizu.

Autore-eskubideak eta lotutako eskubideak beregainak, pilagarriak eta ez-baztertzailak dira. Hau da, baliteke antzerkilari batek gidoi bat idaztea eta, aldi berean, gidoi hori jokatzeta, eta, gainera, antzeztan batean eszena-zuzendari jardutea. Era berean, koreografo bat orobat izan daiteke berak sortutako dantza-piezako dantzaria.

2- ESKUBIDEAK KOBRATZEKO, OBRA DERRIGOR INSKRIBATU BEHAR AL DA ERREGISTRO BATEAN?

Ez da derrigorrezkoa obra bat **Jabetza Intelektualaren Erregistroan** inskribatzea hura babesteko edo autore-eskubideak kobratzeko. Alabaina, komeni da sorkuntzaren une jakin baten existentziaren frogak izatea, badaezpada, obraren autoretzaren gaineko gatazkarik pizten bada etorkizunean. Erregistro publikora jo daiteke, baita bitartekari independente batera ere.

Hona hemen erregistro publiko batzuk: [Jabetza Intelektualaren Tokiko Erregistroa, Euskadi](#); [Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorra, Espainia](#); eta [Jabetza Intelektualaren Bulegoa, Frantzia](#).

Eta hona hemen enpresa edo agente pribatu batzuk: [Safe Creative](#), [Coloriuris](#), [Musicdibs](#), etab.

3- ZEIN DIRA OBRA ESZENIKOEN EGILEKIDEAK?

Arte eszenikoen eremuan, guztiz ohikoak dira lankidetzan egindako obrak, hau da, hainbat autoreren sormen-ekarpenekin osatutako emaitzak (adibidez, zirku, antzerki edo dantza garaikideko lanetan, pertsona batek koreografia egiten du, beste batek musika sortzen du preseski pieza horretarako, eta gero badaude testua, bisualak, etab.).

Orokorrean, obra eszenikoen egilekidetzat hartzen dira testuaren idazlea, musika originalaren konposatzailea eta koreografiaren sortzailea. Hala eta guztiz ere, egilekidetzat jo liteke, orobat, material originala sortu duen pertsona oro, hala nola eszenografia, argiztapen-diseinua, bideo-eszenak, jantziak, etab. sortu dituenak. Alderdien arteko akordio pribatuaren arabera izango da dena. Horregatik, guztiz gomendagarria da dokumentu bat idaztea, eta horretan adostea, adibidez, bakoitzaren parte-hartzearen ehunekoak.

Eskarmentuari esker ikasi dugun moduan, halako akordioak oso erabilgarriak dira balizko eztabaidak argitzeko, adibidez, sorkuntza eszenikoan parte hartu duen kide batek konpainia lagatzen duenean. Pertsona horrek autore-eskubideak jaso ahal izango ditu obra jokatzen den bitartean, antzezle-taldean egon ez arren.

4- BA AL DUT BESTEREN MATERIALIK SARTZERIK NIRE OBRAN (ADIBIDEZ, TESTUA, MUSIKA EDO IRUDIAK)?

Zeure obran sartu nahi dituzun sorkuntza-materialak jabetza publikokoak* baldin badira edo ez badaude inongo eskubideren pean, lasai asko erabil ditzakezu. Hori bai, **izendatu** ezazu autore originala, **derrigorrezkoa** da eta.

Musika, testuak edo irudiak eskubideen mende baldin badaude, autoreei baimena eskatu beharko diezu, materiala erabili aurretik. **Autorea edo titularra nor den egiaztatu beharko duzu, baita haren eskubideak nork kudeatzen dituen ere.** Ez dago aldez aurretik ezarritako tarifarik; hori dela eta, baimenaren prezioa titularrak edo titularrek finkatuko dute. Normalean, leihatilako sarreraren ehuneko bat eskatu ohi da, baina baliteke, kopuru finko bat eskatzea ere. Gogoan izan garaiz bildu behar dituzula baimen horiek, prozesu osoa obra estreinatu aurretik kudeatzeko moduan.

*Jabetza publikoa lurraldearen arabera da. Oro har, hala Espainiako nola Frantziako estatuetan, obraren ustiapen-eskubideek autorearen bizialdi osoan irautea dute, eta haren heriotzaren ostean beste 70 urtez luzatzen dira (Espainiako estatuan 80 urte finkatzen dira 1987ko abenduaren 7a baino lehen hildakoen kasuan). Tarte horren ostean, obrak jabetza publikoan sartzen dira, eta edonork balia ditzake, betiere autorea errespetatuz eta obra bere osotasunean gordez.

Musika-grabaketen edo ikus-entzunezko grabaketen kasuan, eta testuinguruaren arabera, 50 edo 70 urte ezartzen dira, pieza interpretatu edo grabatu zeneko urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 1etik hasita. Era askotako kasuak daudenez, hona gure gomendioa: informazioa bildu, eta argi eta garbi egiaztatu ea musika-grabaketa bat edo ikus-entzunezko grabaketa bat jabetza publikokoa den benetan, hori baimenik gabe ez erabiltzeko.

→ Adimen artifizialarekin (AA) sortutako materialei buruzko aipamen berezia:

Zure ikuskizun eszenikoaren musika edo testua osatzeko AA sortzailea erabiltzea askoz aukera merkeagoa eta bizkorragoa izango dela pentsatu baduzu, gogoan izan honako hau: AA eredu bidez sortutako materialak ez dira obra babesgarritzat hartzen, legez. Beraz, AA erabiltzen baduzu zeure obra eszenikoaren zatiren bat sortzeko, zeure piezaren zati hori ez da inongo eskubideren mendean egongo, eta edonork berrerabili ahal izango du bere obra batean, zuri baimenik eskatzeko beharrik gabe eta sosik ordaindu gabe.

Gainera, AA sortzaileko aplikazioarekin materialik sortuz gero, aintzat izan behar dituzu zerbitzuaren zehaztapenak eta baldintzak (maiz, halako testuak zailak dira ulertzen, edo jendeak zuzenean ez ditu irakurtzen, baldintzak onartu arren). Eredu gehienek mugatu egiten dute sortutako edukiaren erabilera publikoa, batez ere ereduaren doako bertsioa erabiltzen denean.

Teknologia hori erabiltzeko asmorik baduzu, hona gure gomendioa: gogoan izan AA sortzailea erabiltzearen xehetasunak eta ondorioak. Badira kalitate-zigilu batzuk ere: ziurtagiri bat ematen diete, modu bidezkoan, dagokion baimenarekin eta sortzaileen eskubideak urratu gabe prestatu diren AA erduei. **AA sortzailea ez da teknologia neutroa**. Bilatu horri guztiari buruzko informazioa, baita halako ereduaren ingurumen-aztarnari buruzkoa ere, teknologia erabili ala ez erabaki aurretik.

Era berean, hirugarren bati eskatu badiozu zure pieza eszenikorako musika, testua edo beste edozein material sortzeko, komenigarria da pertsona horrek idatziz ziurta diezazun obra originala dela, eta adieraz dezala ea AA erabili duen, eta, hala balitz, zer neurritan.

5- AUTORETZA-ESKUBIDEAK KOBRAZTEKO KUDEAKETA KOLEKTIBOKO ERAKUNDEREN BATEKO KIDE IZAN BEHAR DA NAHITAEZ?

Obra eszenikoak kudeatzeko ez da beharrezkoak kudeaketa kolektiboko erakundeen (KKE) bidez jardutea; era horretako erakundeak dira [SACEM](#), [SACD](#), [SGAE](#) eta [EKKI](#).

Obra eszenikoen egilea baldin bazara, gogoan izan, beti, bi aukerak dituzula eskura: batetik, zeure eskubide eskusiboak maila indibidualean kudeatzeko aukera, eta berariazko mandatu-kontratu baten bitartez kudeaketa horren ardura KKE bati edo halako zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bati eskatzekoa. Baduzu aukera, halaber, obra batzuen kudeaketa mandatu bidez bideratzeko, eta beste batzuen ez, betiere zure baldintzen arabera. Hau da, KKE batekin elkartu bazara zure obra eszeniko baten kudeaketa mandatu bidez bideratzeko, horrek ez du esan nahi KKE horri baimena eman diozunik zeure izenean kobratzeko zeure obra guztien gaineko eskubideak. Mandatua, izan ere, banaka gauzatu daiteke, obraz obra. Gainera, ez dago aurrez ezarritako tarifarik: egoki irizten diozuna eska dezakezu (nahiz eta, normalean, leihatilan saldutakoaren % 10 izan ohi den).

Zure obraren kudeaketa KKE baten esku uzten baduzu, kontuan izan zer barne-araudia daukaten obraren aitortpenari eta eskubideen ehunekoan banaketari dagokionez. Zalantzarik izanez gero, bazkideentzako arreta-zerbitzuan esango dizute zer-nolako izapideak egin behar dituzun.

6- NEURE IZEN ARTISTIKOA ETA NEURE KONPAINIARENA BABES DITZAKET?

Zure izen artistikoa, zure konpainiaren izena eta horren logotipoa **Jabetza Industrialaren Erregistroan** inskribatu daitezke **marka edo izen komertzial** gisa. Erregistro horri esker, izenak modu esklusiboan erabiltzeko aukera izango duzu, eta hirugarrenek ezingo dituzte erabili zuren baimenik gabe.

Kasu honetan, Jabetza Industrialaren Erregistroan inskribatzea derrigorrezkoa da. Marka zer eremu geografikotan babestu nahi duzun kontuan hartuta, erakunde hauetara jo beharko duzu: OEPM (Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa), INPI (Jabetza Industrialaren Institutu Nazionala, Frantzia) edo EUIPO (Europar Batasunerako).

AINARA LEGARDON OHAR BIOGRAFIKOA:

Ainara LeGardon (Bilbao, 1976) musikaria eta artista da, eta 1991tik aktibo dihardu. Lan oparoa egin du rockaren, inprobisazioaren eta musika esperimentalaren arloan, hala bakarka nola kolektibo artistikoen eta proiektu eszenikoen barruan.

Europako eta Estatu Batuetako oholtzetan aurkeztu du bere musika, baita soinu-piezak eta ekintza performatiboak garatu ere; 2003tik, berak kudeatzen du bere ibilbidea, autogestioan.

Bere profilean zenbait ildo bateratzen dira: 30 urtetik gorako eskarmentua du autore eta artista independente gisa; gainera, jabetza intelektualarekin eta kultur kudeaketarekin lotutako gaiak ikertzen eta zabaltzen ditu, eta kultur lana duintzearen eta eremu horretan berdintasuna sustatzearen aldeko aktibista da; horrek guztiak ikuspegi guztiz berezia ematen dio.

Bere jarduera artistikoa webgune honetan duzue eskura:
<https://ainaralegardon.com/eu/>; irakaskuntzari dagokiona, berriz, hemen:
<https://eus.legardon.net/>.

LOTURA INTERESGARRIAK:

Autoretza, jabetza intelektualari buruzko podcasta, for dummies (gaztelaniaz)

002 ¿Cómo protejo mi obra? Registros de la propiedad intelectual

010 Uso de música clásica en una pieza de danza. Dominio público

012 Uso de fotos, imágenes o vídeos con fines promocionales

034 La coautoría en obras intelectuales (parte 1).

035 La coautoría en obras intelectuales (parte 2).

043 ¿Qué son y qué no son las llamadas licencias libres?

047 Especial SONM: originalidad, plagio, apropiacionismo

052 Streaming de obra escénica: ¿qué hay que considerar?

089 Especial: PI e iluminación y arte plástico escénico

102 Brainstorming sobre las artes escénicas en la OMPI

